

Joxefran Izpizua

*Zumaia,
Gipuzkoa*

Aurkibidea

Biografia



Euskal Filologoa eta irakaslea Zumaian. Aita zumaiarra eta ama getariarra ditu.

Zintak

ZUM-004

• **Proiektua:** Zumaiako hizkera

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2007-04-19
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Fonetika/fonologia kontuak Zumaiko euskarari

- **Erref**: ZUM-004/003
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:08:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fonetika/fonologia kontuak Zumaiko euskarari: -dxa bukaerak, u-z bukatzen diren hitzak, gaztelaniazko -ión amaierak... Zumaiko euskararen eta Getariakoaren arteko konparaketa.

Transkripzioa

- Filologian batez ere fonetika ta fonologian espezializatu nitzanez, ba, iruitzen zait, gauza batzuk badiala pixkat erne ibiltzekuak, ez? Erne, edo... edo harrapatzekuak, ez? Nahiko Zumaiko bereizgarria iruitzen zait galtzen ai dan -i -a elkarketak. Hau da, epentesi hori, -dxa edo hori. Eta gaiña, bueno, esaerak oan ere badaude, ba, nola aldatzen juten dan, ba, Zarautzen -ya, eta ya Getaitik Zumai aldea ya -dxa, Itziarren -xa. Eta ya hemendik ya Mutrikura -xa ta horrela, ez? Zumaiko da hori, ba, -xa hori, baina ahostuna, -dxa, ez?

- Bai. Tarteko zeoze.

- Getariakoaren berdin-berdina da zuentzat? Neretzat bai, baiña zuentzat?

- Neretzat 'e bai, baiña zailla da esatia, ze guk ama Getaikua deu, baiña nik hala bizi izan det, neretzat berdiña da hori, Getaikua ta Zumaikua. Getaia ta Zumaian arteko beste diferentziak izango dia igual ba, t-ren palatalizazioa... Bai, ba txikitan neri beti adarra jotzen ziaten Getaiako lehengusuak esaten ba guk "aitta" esaten genulako, ez? "Aitta" ta haiek "aita". Baiña hori ez da -ia, hori beste kontu bat da, ez?

- Eta hemen normalian bustidura haundiagoa izango da?

- Bai, bai. Zenbat eta mendebalderago, gehidxo eiten da, ez? Eta geo beste bat, uste det analogiaz eiten dan kontu bat, eta dexente galdu dana, eta da -u-z bukatutako hitzak -kin ez doazenian, Zumaian beti -o esan ditugula, ez? Ordun, "negua", baiña "nego hartan", ez? "Dirua", baina "diro asko", edo, ez dakit, ez? Edo, "katua", baina "kato", ez? "Kato bat" edo "hiru kato", ez? Eta holakuak. Batuz edo gipuzkeraz edo -u-z bukatuak direnak, baina guretzat ez dira -u-z bukatuak. Guretzat jokarazten ditugu -o-z bukatuak balira bezela. Eta gero, -u-rekin -a-ren kontaktuan gero ixten ditugu eta egiten dugu -u, ez? Baina -a-ren kontaktoan ez badago, -a, bueno, mugatzailearen ondoan, ba, ordun, -o hori ageri da.

- Eta esango zenuke hamen Getarian baino nabarmenagoa dela? Zumaiko kontua dala? Edo...

- Ez dakit. Hoixe bai ez dakitela. Ez dakit Getaidxan ere eiten dan hori edo ez. Litekena, e!, baita. Geo, nei iruitzen zait Getaitik Zumaira, adibidez, berriz ere Getaitik Zumaira, alde bat izan daitekela gaztelaniazko -ón

bukatutakoak, ba, "kamiona", "kamioia", holakoak, ba, diferente egiten diala. Eta hau uaintxe ez naiz akordatzten. A ver... e... Nola zan? Zumaian "kamioia" eta haidxek "kamiona".

- "Kamiona" ta "frontona".

- Bai. Eta, eta gero ez dakit zenbateaiño, horren, pues, klaro, hola, ai naiz pixkat enteratu gabe ezer, baiña beti're bukaeretan erreparatuta, baita ere -ón bukaera gaztelaniaz dutenak, -oi egiten ditugunak, adibidez, "balkoia" -a-rekin kontaktuan, baiña bestela, ta uste det hori're oso galdua dala, bestela uste det "balkoe" modukoak esaten ziala Zumaian.

- Hori Getarian iruitzen zait oso, oso...

- Nabarmena, ez?

- Nabarmena dala eta Zarautzen ez dana gertatzen. Zarautzen sekula ez dana gertatzen eta Getarian "morroe" eta "zimarroe" eta...

- Hori da. "Zimarroia" baiña "zimarroe".

2. Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran

• **Erref:** ZUM-004/004

• **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:30

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran: a/e alternantzia (basarri/ baserri). Bere iritziz Zumaiaiko euskara gipuzkera da, baina mendebaldeko gipuzkera, mendebaldeko eragina Zumaiaraino eta, aldi berean, Getariaraino iristen delako. Zumaiaiko euskaratik hurbilenekoa Getariakoa; Itziar/Debako euskararekin eta Zestoakoarekin aldea handiagoa da.

Transkripzioa

- Eta geo beste batzuk, pues, -a / -e alternantziak: "basarridxa" eta ez "baserria", holakoak, ba, mordoxka bat badia, baiña oaintxe ez datozkit burura, baiña... "Berridxa" esan deu beti, "berri", o sea, badira kontu batzuk mendebaleruntz, baiña ziharo mendebalekoa izan gabe. Nei iruitzen zait Zumaiko hizkera gipuzkera izan dala, baiña oso mendebaleko gipuzkera. Hola, mendebaleko isoglosa pillo bat sartzen diala, ez, hor. Ta nik uste det Zumaira sartzen dian asko, Getairaiño sartzen diala. Gero igual Getaitik Zarautza igual alde bat dao ta nahiko aldaketa nabarmena iruitzen zat ya dala Zarautzitan Oriora, hola, kostaldea beituta. Eta beste aldea, ba, Zumaitik Itziarrea ere alde haundi xamarra dao, bai. Bueno, edo zeon. Ze orain dana hola zeatzen ai da, ez? Berdintzen, edo, bueno, holako zeoze. Ez dakit...

- Esango zenuke berdintsuena hau dala, Getarikua?

- Nik uste baetz, baiña...

- Zestua?

- Zestuakua're ya pixkat lerratzen da baita're, ze, adibidez, -dxa bukaera hori beaiek -ya due, zarautzarrak bezela. Honbre, gero hizketan, ez dakit. Hitz batzutan eta horrela, ba, antzekuak izango dia Zestuakua ta [...]. Zestuakua ez det horrenbeste kontrolatzen hola esateko, ez dakit horren ondo, hola, esaten. Hola, ez zat tokatu, ez, baiña... Baiña bai, honbre, zestuarrai igartzen zakoe, ez? Hola... bai, bai.

3. Morfologia kontuak Zumaiaiko euskarari

- **Erref:** ZUM-004/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:13:20

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Zumaiaiko morfologiaren inguruko kontuak. Zumaiaiko nor-nori adizki jatorrak: zat, zako, zakoe... Pluralgileak. Lehen mendebaldeko pluralgileak erabiltzeko joera handiagoa zegoela uste du; lehen "diaz" bezalako formak erabiltzen zituzten. Zumaiaiko adizkiek gipuzkerako oinarria dute baina baita bizkaieraren eragina ere.

Transkripzioa

- Geo, bueno, morfologian, oaintxe bota det eta, ba, NOR-NORI aditza, pues, izugarri aldatzen ai da. Zumaian zan, ba, "zat" eta ez "zait", "zako" eta ez "zaio", "zakoe" eta ez "zaie". Hor ere -oe azaltzen da, lehengo "balkoe" esan deun hori. Beste kontu bat da, baiño bueno... Eta gero, aditzaren morfologian ere pluralgileak asko aldatzen ai dia. "Ai dia" oker ez banao lehen "ai diraz" esaten gendun, beraz, -r eta -z, hau da, gipuzkeraren pluralgilea eta bizkaierarenak, bidxak esaten giñuzen. "Giñuzen" ere, ba, mendebalekoa da eta ez gipuzkera betikoa, -it pluralgilearen orde. Hau da, pluralgilea askotan ere mendebaleko joera genun, ez? Edo "giñun". Eta zer esanik ez, lotura bokaletan, pues, baita ere -a, ez? "Nitxan" eta ez "nintzen", ez? Eta gaiña hori...

- Bustidurarekin.

- Bustidurarekin, bai, dudarik gabe, bai.

- Eta hori gaiñera da hemengo bereizgarria da, ez? Getaria ta Zumaia...

- Bai, dexente, bai. Adibidez, Zarautzekin ta konparatuta, bai. Eta esaten dizut, justo txikidxa nitzala, Getaria juten nitxanean, ni behintzat nitzan "aitxa" esaten zuna eta haiek "aita" esaten zuten, ez? Ya Zumaitik Getaria ya bazun ya aldaketa txiki hori bustiduraren inguruan baita, ez?

- Adizkietan nahiko, Getaria ere nahiko, ez dakit zein adizkitan dan, baiña "ikusi (di)txut" eta holakoak...

- Bai, bai, bai, bai. Pluralgile hori "txut", "txat", erabat, bai, bai, bai, erabat. Oaindik ere egiten dila iruitzen zat hori, ez?, dexente. Ba, ez dakit. Aditzak, eske, paradigma osua dia uste det, nere ustez galdu dianak, ez? Baiña ez dakit. Adibidez, IZAN aditza, ba, oker ez banago, zan "etorri nax", "nax" edo holako zerbait, diptongoa behintzat ez eta -z bustia, bai, oso nabarmen, batez ere hikaz, "hax", oso nabarmen. Ta geo, "geaz", hau da, gipuzkera eta bizkaiera arteko forma bitxi hori, gipuzkeraren g- horrekin eta bizkaieraren -z horrekin: "geaz", "zeaz", "zeazte" eta "diaz". Eta horrela, aditz paradigma osoak hartu daitezke eta guztietan ikusten ba, badala pixkat, hola, ba, gipuzkera eta bizkaieraren arteko, hola, ezaugarriak, ez? Oinarria nere ustez gipuzkera, izanik, baiña ez da Deba Bailaran aia sartzen Bizkaia.

4. "Zikak" adizkia

- **Erref:** ZUM-004/007
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:15:25

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Zumaiako euskararen berezitasun bat: "zaidak" esan beharrean "zikak" bezalakoak esatea.

Transkripzioa

- Eta hori, geo... a! Badao igual berezitasun bat "zait" hitanoz edo alokutiboan esaterakoan, ba, "zaidak" edo holakoak esan beharrean Zumaian beti "zikak" esan degula, eta nahiko forma bitxia da! Ez dakit nundikan datorren hori, batez ere -k- hori. Baiña bueno, izan daiteke analogiaren bat edo holako zerbait. Hiperzuzenketa ez det uste danik.

5. Auzoen arteko aldea hizkeran

- **Erref:** ZUM-004/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:18:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Zumaiako lexikoa. Zumaiako kale eta auzoen artean ere ba omen zegoen aldea lehenago hizkeran eta lexikoan. Oikiako euskara Zumaiakotik desberdina da. Auzoen arteko aldea hizkeran.

Transkripzioa

- Geo, puf!, hiztegian, eske lexikoa izugarri aldatu da, ez? Eta hor ya galdu egiten naiz. Ez dakit. Ez det horrenbeste... holako... Sarasolanakin... Esaten dizuet, ni batez ere, neretzat soinu mundua izan da interesantea eta hortxe ibili naiz, ez? Baiña, bai. Hitz bereziak mordua dia itsaso inguruan. Geo badakit Zumaian bereizten diala, bereizi izan diala, bereiztu izan diala baita're, bai San Telmo kaleko hixkerak eta bai Arritokietako kalekuak. Eta, eta geo, ba Arrukalekuak eta abar, ez? San Telmo kalekuak, ba, ya itsasoko zea gehio ta hola, eta ya Arritokietakuak, ba, ya baserritarraguak eta...
- Eta benetako bereizketa bat zan?
- Hala esaten due, bai. Nik osaba-izekoi ta aitu izan diyet, ez?, hola, ba, "bai, San Telmo kalekoen hitza zan" ta ez dakit zer ta holakuak aitu izan ditut. Oain, ez dakit esateko hola adibiderik, burura ez datorkit, baiña... Baiña bai, aitu izan det holako...
- Eta auzuetan bai izango da... desberdiñak dira? Oikian...
- Bai, bai. Oikian dudikan gabe, bai, bai. Hori ya, bueno, Zumaidxa da administratriboki, baiña hizkeraz beste kontu bat da, ez?
- Eta hizkeraz gehiago Aizarna inguru... Zestua, Aizarna, Aizarnazabal...
- Bai, bai. Iruitzen zait alde horta bai lerratuko da, ya barrualdeko zea, ez?
- Eta bestela, beste auzuetan edo? Elorrixan ta?
- Elorrixa ez da Zumaia.
- Basarri batzuk ere ez?
- Ez.
- San Migel auzua?
- San Migelen ez dakit oso ondo.
- Hura aparte xamar bezela gelditzen da, ez?

- Bai, bai. Hor, karo, Artadiko baserri batzuk Zumai aldea dia ta beste batzuk Oiki aldea. Ordun ez dakit hor ere aurkituko dezuen diferentziarik edo, ikusi beharko litzateke. Pentsatzekoa da hor nunbaitetik isoglosa batzuk pasatzia, ez? Eta hor alde batzuk, aldaketa batzuk gertatzia. Baiña ez dakit, egidxa esanda ez nax gehidxegi zeatu hortan. Ez dakit. Bai, baiña bueno, nabarmenena behintzat auzo aldetik Oikikua da desberdiñena. Eta gero Zumai barruan, ba, hori, ba, nik aitu izan detenez behintzat, ba, San Telmo kalekua nahiko, nahiko bitxia zan, nahiko beria, ez? Bizimodua ´re, pues, arrantzaleen kalia zan eta nahiko desberdiña zuten. Orduan, pues, normala da hor pentsatzekua, bai. Hartu-emanak ere beste batzuk izango zituzten itsasoko jendiakin eta bueno, bizibidea desberdiña izanik, normala, ez?

6. Zumaiako auzoak eta mugak

- **Erref:** ZUM-004/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Zumaia, Deba eta Zestoako mugako baserriak; mugak ze ingurutan dauden. Zumaia lurrak. Zumaia eta Getariaren arteko muga. Zumaiako auzoak.

Transkripzioa

- Auzo bakarrak hoiek dia, ez? San Migel... Hor Elorrixa ez da, baiña Elorrixatik Zumairako tarte horretako baserritarrak eta, hori...
- Hor baserri gutxi dia Zumaikuak, e! Bai.
- Gehienak Itziar dia?
- Ya. Gehienak Itziar dia. Ya... Bueno Pikotea izango da Zumaiko azkena oker ez banao... ez dakit oso ondo, e!, hor muga. Badakit hor'e Zestua sartzen dala.
- Eske, Arrua ya Zestua da.
- Bai, eta oker ez banao, aber, nola zan? Iparre Zumaia da, hor Jadarre gaiñean daon baserriya, karreteran bertan jarraituta, oker ez banao, hurrengo basarridxa Xarrondo Behekua Zestua da eta Xarrondo goikua ez dakit, baiña ondorengua, Endañeta, behintzat ya Deba da. Asike... eta elkarren onduan daude danak! Hoidxe danak bide batian, baiña hor Zestuak egiten du holako zea bat, gauza arraro bat Zumaia ta Deban arteko mugetan. Eta gero ya itsasoan Zumaia ta Deba, beno, ya Deba, Itziar, oso, oso urrutira dijua. Zumaia ez det uste, hola, kosta haundia dunik. Ze, Santidxoko plaian ere, Santidxoko plaiaño da Getaia, garai batean erridxoaiño. Eta hor izan zian historian hainbeste borroka eta eztabaida batzarretan eta hori Getaia ta Zumaia artian, erribera hori zeñena zan ta hori. Eta, eta gero hori, ba, Urolaren alde hontatik hasita ta Pikoteaño, ba, ez da pusketa haundidxa. Zumaia gehio barrualdea sartzen da, hori Indamendiraiño, eta garai batean Aizarnazabal'e bazan Zumaia, baiño bueno, hizkeraz beste kontu bat da. Hori diferentia da, bai. Bai, baiña auzuak hoiek. Bueno, geo Txikierdi daukazue, Txikierdi, Narrondo... Narrondo, Larrondo, aber jendiak nola esaten dun. Ze, ofizialki badirudi n-kin dala, baiña l-kin askotan aitzen da. Erridxuai're Larrondo entzun izan det deitzen. Bai, eta gero, ba, hori, Gautxori edo Jadarre hori eta beste auzuak, bueno, estazioko auzua ta hola, baiña ya, ya Zumaian geatzen dian auzuak dia, ez?

7. Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran

- **Erref:** ZUM-004/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:22:35

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran: a-z bukatzen diren zenbait hitzetan bokalen luzapena: "neskaa", "saldaa" ¹, z/s eta tz/ts neutralizazioak.

Transkripzioa

- Fonetikan, Zarautzen aztarnaren bat jaso degu, baiña hemen arruntagua izango da -a mugatzaillia, -a-z bukatzen dian hitzetan, -a mugatzaillia eranstea: askaa, gaztaa, pasaa...
- Bai, hamen dezente. Hori entzungo dezue. Zaharrei aituko diezue hori: neskaa... Gaztaa-rekin kontuz ibili behar da, kasua berezia da.
- Hemen gaztaia da?
- Ez, gaztaa da baita, baiña gaztaa beti hitz berezia da. Gazta ta ardua. Gazta ta ardua bereziak dia ze jatorriz beste hitz batzutatik datoz, ez? -n-ren erorketa: gaztana edo ardanoa omen zian hitz zaharrak. Baiña bai, neskaa eta azaa eta holakoak oaindikan...

- Eta saldaa...

- Bai, saldaa...

- Zarautzen lau edo bost hitz dia: neskaa, azaa, saldaa...

- Bai. Hoidxek aitzuko dituzue. Eta Itziarren ya, ya aldatzen da.

- Askia, saldia...

- Bai, bai...

- Neskia.

- Bai. Ya, disimilatu egiten da. Hor, ba, hori, hoiek ere... Bueno, ahaztu egin zait hori esatia, baiña hoidxek ere aitzen badituzue, ba, hoiei, hoiek entrebistatu. Hoiei atera, ahal dana, ez? Bai.

- Eta zeta? Jende zaharren artian -z-...

- Ez da bereizten, ez. Bueno, mendebalean bezela. Eta gaiñea nik uste hori ya Donostiraiño ailegatzan dala. Baiña Normalean -s- ta -z-, -s- antzeko batean asimilatzen dia bidxak. Eta -ts- ta -tz-, -tz. Osea, -ts-´re ez da...

Osea, pertzona, eta abar. Osea, -ts- iñondik ere iñoa ez da aitzen.

- Nik zalantza daukat, Zarautzen, baserritar batzuen artian eta, ño!, beti ez da -s- ta -z- arteko zeoze. Batzuetan...

- Zeoze bereizten da?

- Bai. "Gazte" ta hitz batzuetan nik uste det hor daola, jende nagusia eta baserritarra.

- Ya.

- Kaletarren artian esango nuke galdu dala. Baiña Urdanetan eta Urtetan eta Aian eta...

- Barrualdea, ezta?

- Esango neuke, hor...

- Bai.

- Hor dagola, e!

- Bai. Ba nik uste det ya z-ak aitzeko barrualdea jo behar dala.

- Horreatik. Igual hemen Oikiñan nagusi-nagusi batzuk...

- Ez dakit. Oikiyan ez dakit...

8. Kanpotarrak Zumaian; Zuloagaren etxean tertuliak

- **Erref:** ZUM-004/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:28:30

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Lehenago Zumaian 4 zine inguru zeuden. Amaia hotela ezaguna zen herrian. Zumaia ere beraneanteak aspalditik etortzen ziren. Esaten da garai bateko Madrilgo tertuliek Zumaian izaten zutela jarraipena Zuloagaren etxean. Horregatik dute Zumaiaiko zenbait kalek jende ezagunaren izena. Zezenketak egiten ziren ospitalearen alde.</p>

9. "Luakiak" nola egiten ziren Zumaian

- **Erref:** ZUM-004/016
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:36:05

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

"Luakia" zeri deitzen zaion. Zumaiaiko "luakien" inguruko azalpenak; "luakiak" nola egiten zituzten azaltzen du. Zumaian non dauden "luakiak".

10. Zumaiaiko arrantza-motak: harraldekoa eta "gabarrantza"

- **Erref:** ZUM-004/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:39:15

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Zumaian ze arrantza mota izan diren nagusi: harraldeko arrantza eta gau-arrantza. Olagarroak arrantzatzeke ohitura ere aspaldikoa da Zumaian. Harraldearen parte bakoitzak bere izen propioa du eta izen horiek jasotzea interesgarria litzatekeela dio. Esaterako, harraldeko gunek bati "Kato plaza" deitzen zitzaien.

11. Itzurungo hondartzak propietate sendagarriak

- **Erref:** ZUM-004/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:50:00

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Beti esan izan da Itzurungo hondartzak badituela sendagarriak diren propietateak, iodo asko duelako, mendebaldera orientatuta dagoelako eta harea ere itsasoko harea delako. Honen inguruko azalpenak. Esaten zen kanpotarrak Zumaia okertuta etorri eta zuzen-zuzen (sendatuta) itzultzen zirela euren etxera.

12. Debako Mardari auzoa

- **Erref:** ZUM-004/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 01:00:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bera bizi den lekua Mardari auzoa da, auzo handia, baina elizarik, plazarik edo eskolarik gabea. Auzo horretakoek Elorriaga auzorako joera dute, eskolara edo elizara bertara joaten zirelako. Bi auzo desberdin izan arren, lotura handia dute. Gainera, Elorriagako San Sebastian santua Mardari auzotik eramandakoa dela esaten da.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com